

Bilbao New York Bilbao
Kirmen Uribe

Alderdi negatiboak.-

Nobela gidatuko duen benetako haria falta da, edo hobeto esateko, hari horren benetako garapen integrala falta da. Emaizta apur bat artifizia da. Batzuetan, snob. Ukitu kurtsi bat edo beste ere antzeman diot, baina ez gehiegi. Pertsonaia, bere nobelarako materiala biltzen diharduen idazle bat... mesfidantzaz ikusten dut. Ez dirudi fikziozko pertsonaia denik, baizik-eta... hori ba, benetako “idazle” bat, bere nobela egituratuko duen pertsonaia baten bila ibiltzen dena. Sintaxia egokituegia dago. Esaldi motz pila bat, mundu guztiak ondo-ondo uler ditzan... Ez dakit... Nire aita arrantzalea izango balitz eta irakurtzen ia jakingo ez balu, ez nioke galde egingo nire liburuak nola idatzi behar ditudan “ulergarriak” izan daitezen. Azken finean, idaztea jarduera intelektuala da. Liburuak sortzen didan sententzia horixe delako diot hori, “mundu guztia pozik” utzi nahi balu bezala. Ez dakit planteamendu oker baten ondorioa den, idazlearen oinarritzeko premia bat ote den, edota euskaraz best-seller bat erdiesteko eginiko saio –arrakastatsu– bat ote den. Litekeena da denetik pixka bat izatea.

Alderdi positiboak.-

Liburu dinamikoa da, hau da, atal batetik bestera eramaten zaitu bizkor eta arin. Eta hori berez ez da bat ere seinale txarra. Batzuetan, askotan, alderdi jakin batzuk adierazteko orduan, halako sakontasun kontzeptual bat lortzen du, eta hori guztiori bere ekonomia sintaktikotik atera gabe. Liburuak askotan harritu egiten zaitu bere interpretazio bikoitzekin eta bere keinu apur bat “sekretuekin”, irakurlearengan gogoeta edo sententzia jakin bat sorraraztea xede dutenak, eta apropos idatzitako bere esaldi eta hitz anbiguoekin. Dokumentazio-lana interesgarria da, gure oroimen historikoarekin nolabait loturik dauden alderdi historikoak eta hamaika bat pasadizo erreskatatu egiten ditu, liburuan nagusi den ageriko lokalismo batetik abiatua, baina aldi berean izaera unibertsalerantz joz. Merezi du irakurtzea.